

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure negozio eredua ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkideen sareak osatzen ditu, izan ere, hornitzaile ez bazkiderik gabe, ezingo litzatekeelako gure proiektua aurrera eramanean. Horretarako, ezinbestekoa izango litzateke enpresen arteko ituna sortzea, dena adostuta geratzeko eta denontzat bidezkoa eta fidagarria proiektua aurrera eramateko. Ez hori bakarrik, aliantzaren bitartez baliabideak eta kostuak optimizatzea lortuko genuke eta horretarako gure enpresa beste luxuzko hainbat dendekin aliatzerako orduan, gure kostuak murriztea lortuko genuke alde batetik.

Horregatik gure kasuan, bazkideak luxuzko dendak izango lirateke, jada denboraldiz kanpo edo dendan salgai ez dauden produktuak edo saldu ez direnak guk erosiko genituzke. Horrela arropa horri bigarren erabilera bat emango genioke gure eskaintzaren barruan sartu eta alokatzeko aukera emanez. Honekin gure konpainiak lortutako diru zati bat bazkideentzat izango litzateke eta guk beste hainbat produktuetan inbertituko genuke gure hartzaileak asebetetzeko.

Gure enpresak beste batekin aliantzak egiterako orduan, hainbat puntu garrantzitsu egongo lirateke gure proiektua aurrera eramatea ahalbidetuko liguketenak. Esaterako, negozio-eredua optimizatzea, arriskuak murriztea eta baliabideak eskuratzea.

Negozio-eredua optimizatzeak hainbat gauzetan lagunduko digu gure proiektua eraikitzerako orduan. Lehenik eta behin helburua zehaztu behar da, helburu hauek etorkizunari begira noraino iritsi beharko genukeen adierazten dute, prozesu guztiko helburu bakarra gure helmugara iristea ahalbidetuz. Gainera, modu eraginkorrean lan egiteak lagunduko gaitu arrakasta eta bezeroei behar duten kalitate eta prezio hobekia eskainiz gure enpresak aurrera egitea. Hori gutxi balitz bezala, akatsak identifikatu eta horiek hobetzea oso puntu garrantzitsua izango da, talde lanean aritzearen parekoa. Eta amaitzeko, negozio-eredua optimizatzeke gure bezeroei egokitzea izango da puntu nagusia.

Bestalde, arriskuak murrizteak onurak ekartzen dizkigute. Esaterako, gure bazkide garen horretan, ziurgabetasuna gutxituko litzake, hau da, babesak izango genuke eta galera edo arazoren bat izateko arriskua murriztuko litzake. Gure kasuan, Dior, Gucci, Yves Saint Laurent eta Louis Vuitton elkarteekin harremanetak jarriko ginateke adostasun batera iristeko, izan ere, hauen arropak jarriko ditugu alokairuan eta etekinak biezat izango lirateke. Horrela, arrisku ekonomikoak ere murriztu egingo lirateke.

Azkenik, baliabideak eskuratzean, enpresa bakoitzak beste enpresari beraien ahalmenak irakasten saiatzen dira. Baliabide hauen onurak honakoak dira: baliabide espezifikoak lortzea, ezagutza, lizentziak eta bezero berriak lortzea. Ondorioz, esan dezakegu puntu hauek onura handiak ekarriko zituela gure proiektuari.